



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko azaroaren 29a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:00 **AMAIERA-ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, M. Jose San Sebastian Aranburu,
Martxiel Genoba Solaberrieta, Ainhoa Leunda San
Sebastian, Noemi Ostolaza Arkauz, Asier Yeregi
Campos, M^a Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue
Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Bertaratu ez direnak

Eugenio Cotado Iturain, herritik kanpo dagoelako.



Aztergai zerrenda

1. Kontu ematea Hauteskunde Batzorde Zentralak luzatutako zinegotzi egiaztagutuna EAJ-PNV/EA koalizioko ASIER YEREGI CAMPOS-en alde, eta egoki bada, karguaz jabetzea.
2. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2005eko urriaren 27ko ohiko bilkuraren eta 2005eko azaroaren 2ko ezohiko bilkuraren akten zirriborroak.
3. Jasotzea, egoki bada, Orioko Udalaren Alkate kargua, erabateko dedikazioan, betetzeari dagozkion Udalbatzarraren akordioak.
4. Jasotzea, egoki bada, Batzorde Informatibo Iraunkorrei dagozkien Udalbatzarraren akordioak.
5. Onartzea, egoki bada, kide anitzeko organoetan Orioko Udala ordezkatuta izan behar dituen izendapenak.
6. Behin betiko onartzea, egoki bada, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango diren Ordenantza Fiskalen aldaketa.
7. Behin betiko onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzaila.
8. Onartzea, egoki bada, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera taxi zerbitzuaren hiriko tarifak.
9. Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Orioko Udalaren Aurrekontu Orokorra.
10. Onartzea, egoki bada, 2006ko urteari dagokion Orioko Udalaren Plantilla Organikoa eta Lanpostu-zerrenda.
11. Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren artean sinatzeko Hitzarmena, mendeko pertsonen etxez etxeko



laguntza zerbitzuaren kudeaketa formalizatzeko, eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

12. Onartzea, egoki bada, etxez etxeko laguntza arautzen duen Udal Araudia.
13. Ahalmen zabala ematea, egoki bada, Udal honetako Alkatetza-Lehendakaritzari Eusko Jaurlaritzarekin A.I.U.2-n –Orioko Sistema General Puesto Deportivo– dauden udal lursailen salmentaren eskritura publikoa sinatzeko.
14. Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko Nikolas Deunaren Parrokia-eliza”-rekin sinatutako dokumentuaren testuaren aldaketa. Dokumentu horrek “Orioko San Nikolas kaleko 8. zenbakiko eraikinaren Birgaitzea”-ren obrei dagokien finantzazio baldintzak eta jabekidetzaren arauak ezartzen ditu, eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen zabala ematea dokumentu hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
15. Onartzea, egoki bada, Deklarazio Instituzional bat sexuen arteko berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka.
16. Onartzea, egoki bada, Pobreziaren Aurkako Manifestu bat.
17. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. KONTU EMATEA HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALAK LUZATUTAKO ZINEGOTZI EGIAZTAGUTUNA EAJ-PNV/EA KOALIZIOKO ASIER YEREGI CAMPOS-EN ALDE, ETA EGOKI BADA, KARGUAZ JABETZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Asier Yeregi Campos zinegotzi karguaz jabetzen da, bere eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO URRIAREN 27KO OHIKO BILKURAREN ETA 2005EKO AZAROAREN 2KO EZOHIKO BILKURAREN AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko urriaren 27ko Ohiko Bilkuraren eta 2005eko azaroaren 2ko Ezohiko Bilkuraren akten zirriborroak.

3. JASOTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ALKATE KARGUA, ERABATEKO DEDIKAZIOAN, BETETZEARI DAGOZKION UDALBATZARRAREN AKORDIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA Alkate kargua erabateko dedikazioan izatea, eta ordainsaria EUFALEBA-ko 30. maila izango du. Erabaki honen ondorioak 2005eko abenduaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean.

4. JASOTZEA, EGOKI BADA, BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORREI DAGOZKIEN UDALBATZARRAREN AKORDIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Alkateak proposatzen duela Hirigintza. Zerbitzu eta Ingurumen Batzorde Informatzailearen ordezkariak, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzailea eratzea, eta bestetik, Obra, Nekazaritza eta Arrantza Batzorde Informatzailearen ordezkariak, Obra, Zerbitzu eta Ingurumen Batzorde Informatzailea eratzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, Alkatearen proposamena, goian aipatutako bi batzorde informatzaile iraunkorrek eratzeke.

Aldi berean, Udalbatzarrak **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Batzordeak, beraz, honela osatuta geratuko dira:

Hazienda eta Pertsonaleko batzordea.

Titularrak: Martxiel Genoba Solaberrieta (EAJ), Eugenio Cotado Iturain (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ), eta Elena Legarra Alfaro (EA).



Hirigintza, Nekazaritza eta Arrantza batzordea.

Titularrak: Mari Jose San Sebastian Aranburu (EAJ), Elena Legarra Alfaro (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).

Obra, Zerbitzu eta Ingurumen batzordea.

Titularrak: Eneko Olariaga Arruti (EAJ), Elena Legarra Alfaro (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).

Kirola, Gazteria eta Festetako batzordea.

Titularrak: Eugenio Cotado Iturain (EA), Asier Yeregi Campos (EAJ), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Elena Legarra Alfaro (EA), eta Ainhoa Leunda San Sebastian (EAJ).

Asier Yeregi kirol gaiez arduratuko da eta Ainhoa Leunda Gazteria eta Festetako gaiez.

Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzordea.

Titularrak: Noemi Ostolaza Arkauz (EAJ), Aurora Azkue Mujika (EA), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Asier Yeregi Campos (EAJ), eta Eugenio Cotado Iturain (EA).

Gizarte Ongizate, Enplegu, Sustapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza eta Senidetzeetako batzordea.

Titularrak: Elena Legarra Alfaro (EA), Martxiel Genoba Solaberrieta (EAJ), eta Jesus Rodriguez Pousa (PSE-EE/PSOE).

Ordezkoak: Eugenio Cotado Iturain (EA) eta Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ).



5. ONARTZEA, EGOKI BADA, KIDE ANITZEKO ORGANOETAN ORIOKO UDALA ORDEZKATUTA IZAN BEHAR DITUEN IZENDAPENAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

- 1.- Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ) eta Eneko Olariaga Arruti (EAJ) **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkarteko batzorde exekutiboko kide, Orioko Udalaren ordezkari gisa.
- 2.- Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ) **IZENDATZEA** Urola Kostako Mendi Nekazaritza elkartean (URKOMEn) Orioko Udalaren ordezkari izateko.
- 3.- Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ) **IZENDATZEA** Gipuzkoako Ur Kontsorzioan Orioko Udalaren ordezkari titular izateko, eta Eneko Olariaga Arruti (EAJ) **IZENDATZEA** ordezkari ordezkari izateko.
- 4.- Ramon Etxeberria Aldaz (EAJ) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari, Udalak ordezkari behar duen gainerako organo kolegiatuetan.

6. BEHIN BETIKO ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA INDARREAN IZANGO DIREN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 9 boto: Etxeberria (EAJ), Olariaga (EAJ), Ostolaza (EAJ), Leunda (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Yeregi (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio bat: Rodriguez (PSE-EE)]:



BEHIN BETIKO ONARTZEA, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango diren Ordenantza Fiskalen aldaketa.

7. BEHIN BETIKO ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN URAREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUAREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

BEHIN BETIKO ONARTZEA, Orioko Udalaren Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailea.

8. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA TAXI ZERBITZUAREN HIRIKO TARIFAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera taxi zerbitzuaren hiriko tarifak. Beraz, indarrean dauden tarifak % 4ean gehitzen dira orokorrean.

9. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION ORIOKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2005eko azaroaren 22an egindako Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Legarra (EA), Azkue (EA) eta San Sebastian (EAJ-PNV) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2006ko aurrekontu propioari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

DIRU-SARRERAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
1.	Zerga zuzenak	576.595
2.	Zeharkako zergak	441.131
3.	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	770.312
4.	Transferentzia korronteak	2.609.753
5.	Ondarezko diru-sarrerak	225.381
6.	Inbertsio errealen enajenazioa	1.014.506
7.	Kapital transferentziak	987.182
8.	Finantza aktiboak	0
2006KO DIRU-SARRERAK GUZTIRA		6.624.860

GASTUAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
-----------	----------	--------



1.	Pertsonalaren ordainsariak	1.867.057
2.	Ondasun korronteak eta zerbitzuak	1.393.820
3.	Finantz gastuak-Interesak	60
4.	Transferentzia korronteak	584.730
6.	Inbertsio errealak	2.779.193
8.	Finantza aktiboak.....	0
9.	Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa).....	0
2006KO GASTUAK GUZTIRA		6.624.860

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalak % 100eko partaidetza duen ORIO GARATZEN S.L. sozietate publikoaren 2006ko aurrekontuari. Onartutako aurrekontuaren laburpena, kapituluka, hau da:

DIRU-SARRERAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
6.	Inbertsio errealen enajenazioa	1.637.757
7.	Kapital transferentziak.....	360.607
2006KO DIRU-SARRERAK GUZTIRA		1.998.364

GASTUAK

Kapitulua	Azalpena	Euroak
2.	Ondasun korronteak eta zerbitzuak	33.662
3.	Finantz gastuak-Interesak	17.336
6.	Inbertsio errealak	1.947.366



9. Finantza pasiboen aldaketa (maileguen amortizazioa)..... 0

2006KO GASTUAK GUZTIRA.....1.998.364

3.- ONARTZEA Udalaren 2006ko aurrekontu orokorra exekutatzeko oinarriak.

4.- Udalaren 2006ko aurrekontu orokorra **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege-arauetan ezarritakoa betez: Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 150.1 artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzailletza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka botoa eman zuten udalbatzakideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren infrakzioa.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko sarrera-erregistroan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Udalaren 2006ko aurrekontu orokorra hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.



10. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO URTEARI DAGOKION ORIOKO UDALAREN PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUZERRENDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, 2005eko azaroaren 22an egindako Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezkoko boto]:

ONARTZEA 2006ko urteari dagokion Orioko Udalaren Plantilla Organikoa eta Lanpostu-zerrenda.

11. ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN SINATZEKO HITZARMENA, MENDEKO PERTSONEN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KUDEAKETA FORMALIZATZEKO, ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMENA EMATEA HITZARMENA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Gizarte-ongizate Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezkoko boto]:

ONARTZEA, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren artean sinatzeko Hitzarmena, mendeko pertsonen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa formalizatzeko, eta Alkatetza-lehendakaritzari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.



12. ONARTZEA, EGOKI BADA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte-ongizate Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **LEHEN ONARPENA EMATEA** etxez etxeoko laguntza arautzen duen Udal Araudiari.

2. Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzaile den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49 artikuluan ezartzen dena betez, herria jakinaren gainean jartzen da interesatu orok 30 lanegunetan zehar bere erreklamazio eta oharra egin ditzan Udalaren aurrean. Adierazi Udal Araudia interesatuen eskuera egongo da Udaletxeoko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduen barne (astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara), aldi berean adierazten da akordio horri buruz adierazi epean zehar ez bada ez erreklamaziorik ez oharrik egiten behin betiko onartutzat joko dela adierazitako Udal Araudia.

13. AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL HONETAKO ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI EUSKO JAURLARITZAREKIN A.I.U.2-N –ORIOKO SISTEMA GENERAL PUERTO DEPORTIVO– DAUDEN UDAL LURSAILEN SALMENTAREN ESKRITURA PUBLIKOA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintzako Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:



AHALMEN ZABALA EMATEA, Udal honetako Alkatetza-lehendakaritzari Eusko Jaurlaritzarekin A.I.U.2-n –Orioko Sistema General Puerto Deportivo– dauden udal lursailen salmentaren eskritura publikoa sinatzeko.

14. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO NIKOLAS DEUNAREN PARROKIA-ELIZA”-REKIN SINATUTAKO DOKUMENTUAREN TESTUAREN ALDAKETA. DOKUMENTU HORREK “ORIOKO SAN NIKOLAS KALEKO 8. ZENBAKIKO ERAIKINAREN BIRGAITZEA”-REN OBREI DAGOKIEN FINANTZAZIO BALDINTZAK ETA JABEKIDETZA ARAUAK EZARTZEN DITU, ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMEN ZABALA EMATEA DOKUMENTU HORI SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 8 boto: Etxeberria (EAJ), Olariaga (EAJ), Ostolaza (EAJ), Leunda (EAJ), San Sebastian (EAJ), Yeregi (EAJ), Genoba (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE). Bi abstentzio: Legarra (EA) eta Azkue (EA)]:

ONARTZEA, “Orioko Bariko Nikolas Deunaren Parrokia-eliza”-rekin sinatutako dokumentuaren testuaren aldaketa. Dokumentu horrek “Orioko San Nikolas kaleko 8. zenbakiko eraikinaren Birgaitzea”-ren obrei dagokien finantzazio baldintzak eta jabeakidetzaren arauak ezartzen ditu, eta Alkatetza-lehendakaritzari ahalmen zabala ematea dokumentu hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

15. ONARTZEA, EGOKI BADA, DEKLARAZIO INSTITUZIONAL BAT SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Deklarazio Instituzionalak hitzez hitz honela dio:

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa onartezina da bizitzaren eremu guztietan emakumeek jasaten duten bereizkeriaren ondorioz larriena seguru asko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eta bereizkeriaren arazoak gizartearen egiturarekin du zerikusia eta alderdi anitz eta ezberdin ditu. Horregatik, gizartetik erauzteko herri-aginte guztien eta gizarte osoaren inplikazioa beharrezkoa da. Arazo honi aurre egingo bazaio, ikerkuntzan, sentsibilizazioan, prebentzioan eta biktimak babesten eta laguntzen.

Udal honek badaki toki-administrazioak oinarritzko papera duela emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta desagerrarazten eta, hiri dela eta, azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta:

] KONPROMISOA hartzen du, bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legeria betez, emakumeen berdintasunaren alde eta euren eurkako indarkeriaren kontra udal politika aktiboa izateko.

] Udalerriko hiritar guztiak ANIMATZEN DITU indakeria honen aukako jarrera aktiboa azaltzera eta azaroaren 25ean deitzen diren ekitaldietan parte hartzera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezkoko boto]:

ONARTZEA, Deklarazio Instituzional bat sexuen arteko berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka.

16. ONARTZEA, EGOKI BADA, POBREZIAREN AURKAKO ADIERAZPEN BAT.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Pobreziaren aurkako adierazpenak hitzez hitz honela dio:



Pobreziaren kontrako adierazpena

Desberdintasuna eta bidegabekeria nagusi dira mundu honetan. Biztanleen % 10a aberastasunen % 70aren jabe den bitartean, 1.100 milioi lagun bizi dira egunean dolar bat baino gutxiagorekin. Horrela, beraz, guztira 2.700 milioi lagun bizi dira egunean dolar bat baino gutxiagorekin eta honetatik % 70 emakumeak dira.

Herri aberats eta pobreen arteko zuloa gero eta handiagoa egin da azken hamarkadetan. Nolanahi ere, zulo hori gurea bezalako gizarte garatuetan ere igartzen hasi da, non gero eta gehiago baitira bazterkerian eta estuasunean bizi direnak, honako hauek direlarik sektore mehatxatuenak: emakumeak, gazteak eta adinekoak.

Horrela, beraz, Europar Batasunek konstituzioa eratze bidean dagoen honetan, 68 milioi lagun pobrezian eta gizarte bazterkerian bizi dira. 8 milioi daude Espainiar Estatuan; EAEn, berriz, 11.000tik gora miserian bizi dira eta milioi erdi inguru pobrezian erortzeko arriskuan daude.

Espainiako eta Marokoko mugako gertakari larri eta dramatikoek, mundu aberatseko beste muga batzuetan ere ikus ditzakegunak, faktore kezagarri bat gehitu dute, alegia: gizarte garatuetatik urrun zegoela uste genuen pobrezia hau eguneroko arazo bihurtu zaigu eta lehendik ere bagenuen egoera ezegonkorrarekin nahasten hasi da. Pobrezia errealitate global eta globalizatu bihurtu da, bai han, bai hemen.

Gure ustez, mundu honetan ezin justifikatuzkoak dira pobrezia eta desberdintasuna. Ez dago aitzakiarik pobreziari aurre ez egiteko, batez ere jakinik ezaba dezakegula, hain zuzen ere, gure sistema politiko, ekonomiko eta sozial akastunen ondorio zuzena delako. Horrela beraz, gure herrien harreman ekonomiko eta sozialak gidatzen dituen egungo sisteman hau aldatzea eskatzen dugu.

Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokan konprometitzeko deialdia egin nahi diegu nazioarteko erakundeei, nazioko eta tokiko gobernuei eta oro har gizarteari. Ildo honetatik, gutxienez neurri hauek bete daitezela eskatzen dugu:



] Laguntza ofizial gehiago eta hobea garapenerako, hau da, lehentasuna ematea oinarrizko gizarte sektoreei, % 0,7ko konpromisora heldu arte, beti ere merkataritza interesetatik kanpo eta Milurtekoaren helburuekin bat etorritz.

] Koherentzia gehiago gur gobernu politiken artean, politika guztiak pobrezia ezabatzerantz bidera daitezzen, politika sozialek politika ekonomikoen garrantzi bera izan dezaten eta azken hauek garapen sozial iraunkorrarekin bat egin dezaten.

] Politika fiskalaren eginkizuna berrestea eta gastu publikoa desberdintasunak gainditzera eta gizarte kohesioa indartzera bideratzea.

] Ordaindu ezinezko zorra barkatzea: herri aberatsek, Mundu Bankuak eta NMFk herri pobreenen zorraren % 100 barkatu behar dute.

] Nazioarteko merkataritzaren arauak aldatzea, oraingoak herri aberatsen eta enpresa transnazionalen aldekoak direlako.

] Zerbitzu publikoak liberalizazio eta pribatizaziotik babestea, pertsonen oinarrizko eskubideak ziurtatze aldera, hala nola, behar bezalako osasun zerbitzuak, kultura, hezkuntza eta abar izatea.

] Teknologiarako sarbidea eskaintzea teknologiaren abantailez balia ezin daitezkeen herrialde eta sektore sozialei.

] Laguntza gehiago eta hobea gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa gainditzeko, gure gizarteetako bazterketari eta pobrezia-aren arrazoi nagusietako bat baita.

] Laguntza humanitario eraginkorra eskaintzea etorkinei eta arrazakeria eta xenofobiaren kontra borrokatzea.

] Babes sozialeko politikek, enplegu politika aktiboen osagarri direnek, gutxieneko errentak berma ditzatela, pertsona oro duintasunez bizi dadin.

] Demokrazia parte-hartzailean oinarrituriko proposamenak indartzea eta desberdintasunak jasaten dituzten herri, talde sozial eta pertsonak politika ororen subjektu aktibo izan daitezela.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, goian azaldu den Pobreziaren aurkako adierazpena.

17. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATEA

IDAZKARIA